## HIRITAR IZAERAKO HERRI-BIDEEN ERABILERA ETA HORIETAKO TRAFIKOA, ZIRKULAZIOA ETA SEGURTASUNA ARAUTUKO DITUEN UDAL-ORDENANTZA

Martxoaren 2ko 339/90 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartutako Trafiko, Motorrezko Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasuneko Lege berria eman izanak, zenbait aldaketa sartu beharra ekarri du. Aldaketa horietako batzuek, araua garai berrietara egokitu beharretik sortuak dira, eta beste batzuek berriz, egun indarrean dagoen legeriak sortutako eskaeren arabera gai garrantzitsu hau egokitu beharretik sortuak eta udalerriak bere gain hartu behar dituenak, izan ere, bere interesguneari eta, halaber, Udal Autonomiaren oinarritik bertatik eratorritako gaur egungo eskuduntza-esparruari eragiten baitiete zuzen-zuzenean.

Lege honek, bere arautze-ahalmena erabiliz. Hiribideen erabilpenak arautzeko ahalmena aitortu zien udalerriei. Alabaina, praktikan, gatazka asko sortu ziren udal-ahalmen horren mugak zeintzuk ziren ulertzeko arlo askotan egindako ulermen-modu desberdinak sortu eta elkarren aurrez aurre jartzean, udal-arauak ez betetzean ezarritako neurri zigortzaileak erabiltzean batez ere. Martxoaren 24ko 5/1997 Legeak onetsiTako berrikuntzak, segurtasun-gabeziazko egoera hori konpondu egin zuen eta argi gelditu zen, Udalek, zirkulazioko ordenantza orokor bat onetsita, beren udalerriko trafiko eta aparkamendu-ordenamendua arau zezaketela eta neurri zigortzaileak ere har zitzaketela.

Orain gutxi sartu indarrean 18/2009 Legea azaroaren 23koa, Trafiko, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legea aldatzen duena. 7.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Ordenantza hau eman da, udal-araudia indarrean den legediari egokitzeko eta, aldi berean, herri-bideetako ordena eta segurtasuna nahiz horien erabilpen egokiari dagozkion

## ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LOS USOS, TRÁFICO, CIRCULACIÓN Y SEGURIDAD EN LAS VÍAS PÚBLICAS DE CARÁCTER URBANO

La promulgación de la nueva Ley de Tráfico, Circulación de Vehículos a motor y Seguridad Vial, aprobada por Real Decreto Legislativo 339/90, de 2 de marzo, introduce una serie de cambios, unos nacidos de la necesidad de adaptación de la norma a los nuevos tiempos y otros de la necesidad de acomodar esta importante materia a las exigencias derivadas de la legalidad vigente, que deben ser recibidos por el municipio, por cuanto afectan directamente a su círculo de intereses, así como a su actual marco competencial derivado del principio de Autonomía Municipal.

Esta Ley atribuyó a los municipios, en uso de su potestad reglamentaria, la facultad de regular los usos de las vías urbanas. No obstante, en la práctica fueron muchos los conflictos que surgieron al enfrentarse interpretaciones diversas del límite de esta potestad municipal en ámbitos diversos, sobre todo en la aplicación de medidas coercitivas ante el incumplimiento de la regulación municipal. La reforma aprobada por la Ley 5/1997, de 24 de marzo, vino a solucionar esta situación de inseguridad jurídica dejando claro que los Ayuntamientos, mediante la aprobación de una Ordenanza general de circulación, podían regular la ordenación del tráfico y el aparcamiento en su municipio, así como aplicar medidas coercitivas.

Recientemente ha entrado en vigor la Ley 18/2009, de 23 de noviembre, por el que se modifica el texto articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial. En virtud de lo establecido en el art. 7 b) se dicta la presente Ordenanza con la finalidad de adaptar la normativa municipal a la vigente legislación, incluyendo al tiempo aquellas normas

moduak eragiten dituzten arauak ere, arautze-helburu berorren barruan sartzeko helburuekin.

que, por afectar al orden y seguridad en las vías públicas, así como a las formas debidas de utilización de las mismas, se consideran dentro de un mismo objeto de regulación.

## XEDAPEN OROKORRAK

***1. atala. Eskuduntza.***

Ordenantza hau, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak (4. eta 25. artikuluek zehazki) Udalerriei Trafiko eta Zirkulazio gaietan ematen dizkien eskuduntzen indarrez eman da.

***2. atala. Arautuko dena.***

Ordenantza honek arautuko duena, herri barruko bideen trafikoaren arloko erabilera da eta, era berean, trafikoaren antolamendua, zaintza eta kontrola, arau-hausteen salaketak eta zigorrak, ibilgailuak ibilgetzeko, kaleetatik kentzeko eta nonbait jasotzeko eta abandonatutako ibilgailuentzat hartu behar diren zuhurtziazko neurriak hartzeko eta haiek gordetzeko.

***3. atala. Ordenantzaren erabilera esparrua.***

Ordenantza honetan agindutakoa, Soraluzeko udal-barrutiko bide hiritar guztietan izango da aplikagarri.

## DISPOSICIONES GENERALES

***Artículo 1. Competencia.***

La presente Ordenanza se dicta en virtud de la potestad reglamentaria y de la competencia atribuida al Municipio en materia de Tráfico y Circulación por la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local (arts. 4 y 25 respectivamente).

***Artículo 2. Objeto de regulación.***

Es objeto de la regulación de esta Ordenanza, el uso de las vías urbanas en relación al tráfico, así como la ordenación, vigilancia y control del mismo, la denuncia y sanción de las infracciones y la adopción de las medidas cautelares de inmovilización, retirada de la vía pública y depósito de vehículos y vehículos abandonados.

***Artículo 3. Ámbito de aplicación territorial.***

Los preceptos de esta Ordenanza serán aplicables en todas las vías urbanas del término municipal de Soraluze.

## I. IDAZPURUA

## UDALERRIKO BIDE HIRITARRETAKO TRAFIKOAREN ANTOLAMENDUARI ETA ZIRKULAZIOARI BURUZKOAK

### I. ATALBURUA. OINARRI NAGUSIAK

***4. atala. Legedia orokorraren zuzeneko ezarpena.***

Udal-ordenantza honen osagarri moduan erabiliko da Trafiko, Motoredun Ibilgailu eta Bideetako Segurtasunari buruzko Legearen testua, martxoaren 2ko 339/90 E. D. Legegilearen bidez onartua. Era berean, haren arauzko xedapenak ere aplikagarri izango dira.

## TÍTULO I

## DE LA ORDENACIÓN DEL TRÁFICO Y CIRCULACIÓN EN LAS VÍAS URBANAS

### CAPÍTULO I. PRINCIPIOS GENERALES

***Artículo 4. Aplicación directa de la legislación general.***

Serán de aplicación supletoria a esta Ordenanza municipal el Texto Articulado de la Ley sobre tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad vial. Aprobado por R.D.Leg. 339/90, de 2 de marzo. Asimismo serán de aplicación sus disposiciones reglamentarias.

***5. atala. Trafikoa antolatu eta kontrolatzeko neurriak.***

5.1. Udalak trafikoa antolatzeko bidezko irizten dituen neurriak har ditzake, ibilgailu edo oinezko guztien edo jakin batzuen ibiltzeko baldintzak betiko edota aldi baterako aldatuz, murriztuz edo debekatuz edota zamalanak eta salgaien edo pertsonen garraioak arautuz edota berrantolatuz.

5.2. Udaltzaingoak, herriko tokiren batean zirkulazioaren antolamendua aldatu ahal izango du aldi jakin baterako edo/eta lekuren batean pertsonak eta ibilgailuak sartzeko debekua ezarri. Horretarako, aldi baterako behar diren seinaleak jarri edo kendu eta zirkulazioaren segurtasuna eta arintasuna bermatzeko behar diren neurriak hartu ahal izango ditu.

5.3. Ondasunak edo pertsonak ibiltzeko, aparkatzeko edo garraiatzeko, Udaltzainek adierazitakoak, lehentasuna izango du aldez aurretik dagoen edozein seinale edo araudiren gainetik.

5.4. Udalak, baimena duten ekitaldiak egingo diren tokietan, edo konponketa, seinaleztapen, mantenimendu edo garbiketa-lanak egingo diren lekuetan, aldi baterako aparkatzeko debekua ezarri ahal izango. Horretarako, aipatutako tokiak edo lekuak, hesiz inguratu eta, aparkatzeko debekua hasi baino 24 ordu lehenagotik han aparkatzea debekatu egingo dela adierazten duten seinaleak jarriko dira, neurri horren hasiera-unea eta arrazoia adierazita.

***Artículo 5. Medidas de ordenación y control del Tráfico.***

5.1. Por el Ayuntamiento podrán adoptarse las medidas de ordenación del tráfico que se consideren oportunas, modificando, restringiendo o prohibiendo con carácter fijo o temporal, las condiciones de circulación de todos o algunos vehículos o peatones y reordenando o regulando el establecimiento, las operaciones de carga y descarga y el transporte de personas o mercancías.

5.2. La Policía Municipal podrá modificar accidentalmente la ordenación de la circulación en alguna zona de la villa y/o prohibir el acceso de personas o vehículos a algún lugar, para lo que podrá colocar o retirar provisionalmente las señales que sean precisas y tomar las medidas que sean necesarias, en orden a la seguridad y fluidez de circulación.

5.3. Las indicaciones de los Agentes o de sus auxiliares en materia de estacionamiento, circulación o transporte de personas, bienes o vehículos, tendrán prioridad sobre cualquier señalización o normativa preexistente.

5.4. El Ayuntamiento podrá prohibir temporalmente el estacionamiento de vehículos en las zonas que hayan de ser ocupadas por actividades autorizadas o que hayan de ser objeto de labores de reparación, señalización, mantenimiento o limpieza. A tal efecto, se delimitarán dichas zonas, señalizándose la prohibición con 24 horas de antelación mediante señales restrictivas en las que conste la razón y el momento en que se iniciará tal medida.

## II. ATALBURUA. JOKABIDE-ARAUAK

***6. atala. Herri-bideetako oztopoak.***

6.1. Debekatuta dago edukiontzi, mahai, aulki, kiosko, saltoki edota beste edozein oztopo edo gauza ere herri-bideetan jartzea, aldez aurretik udalaren baimenik izan gabe eta bidearen

## CAPÍTULO II. NORMAS DE COMPORTAMIENTO

***Artículo 6. Obstáculos en la vía pública.***

6.1. Se prohíbe la colocación en la vía pública de contenedores, veladores, quioscos, tenderetes o cualquier obstáculo u objeto sin previa autorización municipal y sin que esté debidamente

erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko adinako babes, argiztatze eta seinaleztapenik gabe eta era berean beharrezkoa den baimenean hartarako ezarriko diren arauak bete gabe.

6.2. Herri-agintariak oztopoak kautelaz eta berehala kendu ahal izango ditu, eta gastuak interesatuen kargura izango dira, ondoren datozen egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

1. Beharrezkoa den baimena eskuratu ez dutenean.
2. Baimenaren adierazitako indarraldia amaitua denean.
3. Baimenean ezarritako baldintzak betetzen ez direnean.
4. Baimena emateko arrazoiak desagertzen direnean.

6.3. Aldiz, segurtasun edo higiene eta osasun-arrazoiengatik beharrezko denetan edota obrak burutzeko, ikuskizunak egiteko, beharrezko baimena duten segizioak pasatzeko eta antzeko gertakizunak, Udalak era berean oztopoak kendu egingo ditu.

Ekintza horrek sortuko dituen gastuak, Udalaren gain joango dira, zonalde hori ez balitz behar bezala seinalizatu edota oztopoak seinalizazioa jarri aurretik jarriak baleude.

*7. atala. Seinaleztapena.*

7.1. Zirkulaziorako mugapen espezifikoak dituzten gune, eremu edo areetarako sarbideetan jarritako zirkulazio-seinaleek eta haiei buruzko testuren bat daramatenek, dagokien gune, eremu edo area osoan izango dute indarra.

7.2. Aldez aurretik udalaren baimenik izan gabe, ez da zirkulazio seinalerik jartzerik izango.

7.3. Udal-agintaritzaren iritziz herriaren interesekoak diren informazio-seinaleak bakarrik baimenduko dira.

7.4. Zirkulazio-seinaleetan edo haien ondoan publizitatea jartzeko baimenik ez da emango.

7.5. Debekatua dago erabiltzaileei semaforoak edo seinaleak ikustea galaraziko edo mugatuko dieten edota haien arreta galtzeko bidean jarriko duten

protegido, señalizado e iluminado de modo suficiente para garantizar la seguridad de los usuarios de la vía y conforme a las normas que al efecto se establezcan en la oportuna autorización.

6.2. La autoridad municipal podrá retirar los obstáculos, de forma cautelar e inmediata, con los gastos a cargo de los interesados, cuando se dé alguna de las siguientes circunstancias:

1. No hayan obtenido la correspondiente autorización.
2. Haya vencido el plazo de la autorización correspondiente.
3. Se hayan incumplido las condiciones fijadas en la autorización.
4. Hayan desaparecido las circunstancias que motivaron la autorización.

6.3. No obstante, cuando resulte necesario por razones de seguridad o higiénico-sanitarias, así como cuando lo requiera la realización de obras, celebración de espectáculos, paso de comitivas debidamente autorizadas y otros análogos, el Ayuntamiento procederá a la retirada de obstáculos.

Los gastos de retirada serán con cargo al Ayuntamiento, siempre que la zona no haya sido señalizada correctamente o que los obstáculos estuvieran colocados antes de la colocación de la señalización.

***Artículo 7. Señalización.***

7.1. Las señales de circulación colocadas en las entradas de zonas o áreas con limitaciones específicas a la circulación y acompañadas de una leyenda relativa a las mismas, regirán en toda la zona o área en cuestión.

7.2. No se podrán colocar señales de circulación sin la previa autorización municipal.

7.3. Solo se autorizarán las señales informativas que a criterio de la autoridad municipal sean de interés público.

7.4. No se permitirá la colocación de publicidad en las señales de circulación o junto a ellas.

7.5. Se prohíbe la colocación de marquesinas, carteles, anuncios e instalaciones que impidan o limiten a los usuarios la normal visibilidad de los

estalpe, kartel, iragarki edota instalazioak jartzea.

7.6. Udalak, behar duen baimenik ez duen edota indarrean diren arauak betetzen ez dituen edozein trafiko seinale ere berehala kenduko du, eta kentzeko gastuak, seinale hura jarri dutenen kargura, edota zeharka haren onura jasotzen dutenen kontura izango dira.

***8. atala. Geratzea.***

8.1. Pertsonak hartzeko edo uzteko edota gauzen zamaketa-lanetarako, ibilgailua bi minutu baino gutxiagoko denboran ibilgetzea edo geratuta edukitzea, geratze-eragiketatzat hartuko da.

8.2. Geratzea, erabat debekatuta egongo da:

8.2.1. Larrialdi edo segurtasun-zerbitzuetako ibilgailuentzat gordetako lekuetan.

8.2.2. Pertsonen edo ibilgailuen zirkulazioa oztopatzen den lekuetan.

8.2.3. Espaloiek ezinduak igarotzeko zintarria janda daukaten lekuen ondoan.

8.2.4. Espaloi, pasealeku, oinezkoen eremu eta lorategien gainean.

8.2.5. Ertz, bide-banaketa edo bidegurutze batetik 3 metro baino gutxiagora.

8.2.6. Zubietan eta tuneletan.

8.2.7. Autobus eta taxien geralekuetan.

8.2.8. Ibiliaren aurkako noranzkoan.

8.2.9. Dauden seinaleek debekua adierazten duten tokietan.

***9. atala. Aparkaldia edo aparkatzea.***

Aparkalditzat edo aparkatzetzat joko da, geratuta (geraldian) ez dagoen ibilgailu bat ibilgetuta egotea. Orokorrean, ondorengo arauen bidez arautuko da ibilgailuen aparkaldia:

9.1. Ibilgailuak ilaran aparkatu ahal izango dira, hau da, espaloiarekiko paraleloan; baterian, hau da, espaloiarekiko elkarzut (perpendikular) eta erdi-baterian, hau da, espaloiarekiko zeiharka.

9.2. Lau gurpileko ibilgailuentzako arau

semáforos y señales o que pueden distraer su atención.

7.6. El Ayuntamiento procederá a la retirada inmediata de toda aquella señal de tráfico que no esté debidamente autorizada o no cumpla las normas en vigor, corriendo los gastos de cuenta de los que la hubieren instalado o -subsidiariamente- de los beneficiarios de la misma.

***Artículo 8. Parada.***

8.1. Se entenderá como parada la inmovilización de un vehículo, durante un tiempo inferior a dos minutos, para tomar o dejar personas o cargar o descargar cosas.

8.2. Queda prohibida totalmente la parada:

8.2.1. En las zonas reservadas a vehículos de servicio de urgencia y seguridad.

8.2.2. Donde se entorpezca la circulación de personas o vehículos.

8.2.3. Junto a los rebajes de la acera para paso de disminuidos físicos.

8.2.4. Sobre las aceras, paseos, zonas peatonales y jardines.

8.2.5. A menos de 3 metros de una esquina, cruce o bifurcación.

8.2.6. En los puentes y túneles.

8.2.7. En las paradas de autobús y taxis.

8.2.8. En el sentido contrario al de la marcha.

8.2.9. En los lugares donde lo prohíba la señalización correspondiente.

***Artículo 9. Estacionamiento.***

Se entenderá como estacionamiento la inmovilización de un vehículo que no se encuentre en situación de detención o parada. Con carácter general, el estacionamiento de vehículos se regirá por las siguientes normas:

9.1. Los vehículos se podrán estacionar en fila, es decir, paralelamente a la acera; en batería, es decir, perpendicularmente a aquella y en semibatería, es decir, oblicuamente.

9.2. La norma general para los

orokorra, ilaran aparkatzea da eta baterian, bi gurpilekoentzat berriz baterian aparkatzea. Arau honen salbuespena, espresuki seinalatu beharko da.

9.3. Seinaleztapena lurzoruan eginda dagoen lekuetan, ibilgailuak hartarako markatutako perimetroaren barnean jarri behar dira.

9.4. Nolanahi ere gidariek, ibilgailua bere kasa ez abiatzeko edota beste pertsonaren batzuek ez mugitzeko moduan aparkatu behar dute. Horretarako, beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dituzte. Gidariak izango dira aldez aurretik aipatu berri diren egoeretakoren baten ondorioz sor litekeen ibilgailuaren kokaleku-aldaketaren baten ondorioz gerta litekeen edozein arau-hausteren erantzule, nola ezta, ibilgailuaren lekualdaketa, hirugarrenen batzuen egintza bortitz nabarmenen baten ondorioz gertatu ez den.

9.5. Ondorengo egoeretan debekatuta dago ibilgailuak aparkatzea:

9.5.1. Bertan dagoen seinaleak hala egitea debekatzen duen lekuetan.

9.5.2. Elementu mugikor edo zutoinen ondoan, elementu horiek zerbitzuentzako eta larrialdietarako diren pasaguneetan jarrita egon ohi dira eta.

9.5.3. Geratzea debekatuta dagoen tokietan.

9.5.4. Bigarren ilaran, lehenengo ilara oztopo edo/eta babes-elementuren batek hartua egon arren.

9.5.5. Ibiliaren aurkako noranzkoan.

9.5.6. Bertan dagoen pasabidea uzteko seinalea aintzat hartu gabe edozein eraikinetarako ibilgailu-sarbidean pasabidea erabat edo zatiren bat itxiz.

9.5.7. Karga eta deskargako lanak egiteko gordetako lekuetan.

9.5.8. Ezinduek bakarrik erabiltzeko seinalatutako lekuetan.

9.5.9. Azokagunean gai diren ostegunetan goiezko 07:30etatik arratsaldeko 14:00etara.

9.6. Herri-bideetan ez da motorezko ibilgailutik bereizitako atoi eta erdi-atoirik, ez eta autobusik, traktorerik, karabanarik

vehículos de cuatro ruedas es que el estacionamiento se efectuará en fila y para los de dos ruedas en batería. La excepción a esta norma, se deberá señalizar expresamente.

9.3. En los estacionamientos con señalización en el pavimento, los vehículos se colocarán dentro del perímetro marcado.

9.4. En todo caso los conductores deberán estacionar su vehículo de forma que ni pueda ponerse en marcha espontáneamente ni lo puedan mover otras personas. A tal efecto deberán tomar las precauciones pertinentes. Los conductores serán los responsables de las infracciones que se puedan llegar a producir como consecuencia de un cambio de situación del vehículo por causa de alguna de las circunstancias que se hayan mencionado, salvo que el desplazamiento del vehículo por acción de terceros se haya producido por violencia manifiesta.

9.5. Está prohibido el estacionamiento de vehículos en los casos siguientes:

9.5.1. En los lugares donde lo prohíba la señalización correspondiente.

9.5.2. Junto a los elementos móviles o pivotes, por constituir éstos pasos de emergencias y servicios.

9.5.3. Donde esté prohibida la parada.

9.5.4. En doble fila, ni aún cuando la primera esté ocupada por un obstáculo y/o elemento de protección.

9.5.5. En sentido contrario al de la marcha.

9.5.6. Obstruyendo total o parcialmente, los accesos de vehículos en inmuebles debidamente señalizados con el correspondiente vado.

9.5.7. En las zonas reservadas para la realización de labores de carga y descarga de mercancías.

9.5.8. En zonas señalizadas para uso exclusivo de disminuidos físicos.

9.5.9. En la zona habilitada para mercadillo semanal a celebrar los jueves, entre las 07:30 horas y las 14:00 horas.

9.6. No se podrán estacionar en las vías públicas remolques y semirremolques separados del vehículo motor, ni

edota 3.500 kiloko B.G.M.tik gorako ibilgailurik aparkatu ahal izango, horretarako espresuki baimendutako modu, toki eta aldietan izan ezik, hauek udal-bandoaren bidez iragarriak izango dira.

9.7. Udalak, salbuespen-izaeraz, herriko zenbait auzo edo eremutan aparkatzea mugatu ahal izango du, horretarako baimena ibilgailu zehatz batzuei bakarrik emanez.

9.8. Leku berean ezingo da 30 egun jarraian baino gehiagoz edo mugarik gabeko epealdian aparkatu, abandonu-egoera eman dela uste izateko moduan.

9.9. Udaltzainek, salbuespen izaeraz, herri-bideetako leku zehatzetan aparkatzea debekatu ahal izango dute, behar bezala baimendutako festa, kultura, kirol edo antzeko ekitaldiak direla eta.

***10. atala. Oinezkoentzako guneak.***

10.1. Udal-administrazioak ibilgailu guztientzat edo batzuentzat ibiltzea edota aparkatzea erabat edo zati batean debekatutako kale edo bide hiritarrak dira oinezkoentzako guneak.

10.2. Oinezkoentzako gune horiek, sarreran eta irteeran dagokien seinalea izan beharko dute. Horretaz gainera, aipatutako gune horietan, ibilgailuak barrura sartu eta haietan barrena ibiltzea galarazteko, elementu mugikorrak ere erabili ahal izango dira, duten diseinu, egitura, apaindura edo zoladuragatik, gune horiek helburu horretarako direla bistakoa denean salbu.

10.3. Oinezkoentzako gune horietan, ibilgailuak zirkulatu eta aparkatzeko debekuak, ondorengo era hauetakoak izan daitezke:

10.3.1. Haien perimetro barnean dauden bide guztiak hartzen dituztenak edota haietako batzuek soilik hartzen dituztenak.

10.3.2. Aldez aurretik ezarritako ordutegi batek mugatuak edo mugatu gabeak.

10.3.3. Izaera iraunkorrekoak edota asteko egun batzuetara mugatuak.

autobuses, tractores, caravanas o vehículos de M.M.A. superior a 3.500 Kg., excepto en los términos, lugares y periodos autorizados expresamente, los cuales serán anunciados mediante el correspondiente bando municipal.

9.7. El Ayuntamiento podrá, excepcionalmente, limitar el estacionamiento en ciertos barrios o zonas de la villa, autorizándolo únicamente a determinados vehículos.

9.8. No se podrá estacionar en el mismo lugar por más de 30 días consecutivos o por tiempo indefinido, de forma que haga suponer su abandono.

9.9. La Policía Municipal excepcionalmente podrá prohibir el estacionamiento en determinados lugares de la vía pública, con objeto de la celebración de diferentes actos, festivos, culturales, deportivos, etc., debidamente autorizados.

***Artículo 10. Áreas peatonales.***

10.1. Áreas peatonales son aquellas calles o vías urbanas en las que la Administración Municipal ha establecido la prohibición total o parcial de la circulación rodada y/o el estacionamiento de todos o algunos vehículos.

10.2. Las áreas peatonales deberán tener la oportuna señalización a la entrada y salida con independencia de que se puedan utilizar elementos móviles que impidan el acceso y circulación de vehículos por el interior de la zona afectada, salvo que su condición sea evidente por su diseño, estructura, ornamentación o pavimentación.

10.3. En las áreas peatonales la prohibición de circulación y estacionamiento de vehículos podrá:

10.3.1. Comprender la totalidad de las vías que estén delimitadas por su perímetro o únicamente algunas.

10.3.2. Limitarse o no a un horario preestablecido.

10.3.3. Ser de carácter fijo o referirse solamente a determinados días de la semana.

10.4. Ezarritako mugak edozein izanik ere, ez dituzte eragingo ondorengo ibilgailuen zirkulazioa eta aparkaldia:

10.4.1. Suhiltzaile, salbamendu, polizi eta anbulantzi zerbitzuetakoenak, eta orokorrean, herri-zerbitzuak emateko baimena dutenenak.

10.4.2. Gaixoak nahiz eriak edota pertsona ezinduak daramatzatenenak.

10.4.3. Alde berean dagoen garajeren batetik edota baimendutako aparkaldiren batetik irteten ari direnenak edo hara doazenenak.

10.4.4. Hartarako baimena emandako kaleetan eta orduetan karga eta deskarga-lanetan ari diren ibilgailu baimenduenak.

10.4.5. Inguruko etxeetara tamaina handiko ekipaiak edo/eta fardelak garraiatzen ari direnenak, iriste edo irtete-egoeran aurkitzean.

10.4.6. Herri-agintaritzak debeku honetatik justifikatutako ebazpen bidez espresuki ateratako ibilgailuak.

10.5. Udal-administrazioak, oinezkoentzako guneetan ezarritako muga guztietatik edo batzuetatik salbuetsi ahal izango ditu alde horretan bizi diren herritarren edota gune horretan kokatutako merkatarien jabetzakoak diren ibilgailuak.

10.6. Oinezkoentzako guneetan, edozein egintza tarteko izanik ere, oinezkoei ibilgailuekiko lehentasuna emango zaie.

***11. atala. Garraio publikoaren geralekuak.***

Udal-administrazioak, garraio publikoetako zerbitzu desberdinetako bakoitzari, dagozkion geralekuak eta bertan egon ahal izateko denboraldiak zehaztu ahal izango dizkio.

***12. atala. Karga eta deskarga.***

Karga eta deskargarako lekuak gordeta izango dituzten ibilgailuak, salgaien garraioan bereziki eta espresuki ari direnak izango dira eta lan horiek egiteko helburua bakarrik izango dute.

12.1. Salgaien karga eta deskarga,

10.4. Cualesquiera que sean las limitaciones establecidas, no afectarán a la circulación y al estacionamiento de los siguientes vehículos:

10.4.1. Los del servicio de extinción de incendios y salvamento, de policía, las ambulancias y en general, los que sean autorizados para la prestación de servicios públicos.

10.4.2. Los que transporten enfermos o personas impedidas.

10.4.3. Los que surjan de garaje o estacionamiento autorizado situado en la zona o se dirijan a él.

10.4.4. Los vehículos autorizados que efectúen labores de carga y descarga en las calles y horas en que así se autorice.

10.4.5. Los que transporten equipajes y/o bultos voluminosos o pesados, en llegada o en salida, a domicilios de la zona.

10.4.6. Los vehículos expresamente excluidos de esta prohibición por resolución justificada de la autoridad municipal.

10.5. La Administración Municipal podrá eximir de todas o algunas de las limitaciones establecidas en las áreas peatonales a los vehículos propiedad de ciudadanos residentes en las mismas o de comerciantes instalados en ellas.

10.6. En las áreas peatonales se dará prioridad a los peatones sobre los vehículos en todas sus acciones.

***Artículo 11. Paradas de transporte público.***

La Administración Municipal podrá determinar los lugares y periodos de tiempo en que habrán de efectuarse las paradas destinadas a cada uno de los distintos servicios de transporte público.

***Artículo 12. Carga y descarga.***

Los vehículos a los cuales se reservan las zonas de carga y descarga, serán todos aquellos destinados exclusivamente al transporte de mercancías, con la única finalidad de realizar tales tareas.

12.1. La carga y descarga de

merkataritza eta industri arloko lokalen barruan egin beharko da lehentasunez, eta lokal horiek, hartarako baldintza egokiak izan beharko dituzte.

mercancías habrá de realizarse prioritariamente en el interior de los locales comerciales e industriales, que habrán de reunir las condiciones adecuadas para ello.

12.2. Merkataritza- edo industri arloko lokalek karga eta deskarga barruan egiteko egokierarik ez dutenean, lan horiek, hartarako jarritako ordu eta lekuetan egin beharko dira.

12.2. Cuando las condiciones de los locales comerciales e industriales no permitan la carga y descarga en su interior, estas operaciones se realizarán en las horas y zonas reservadas a tal fin.

12.3. Udal Agintaritzak zehaztuko ditu karga eta deskargarako gordetako lekuak eta hori egiteko baimendutako orduak.

12.3. La Autoridad Municipal determinará las zonas reservadas para carga y descarga y el horario autorizado para la misma.

12.4. Karga eta deskarga egiteko baimena duten ibilgailuak, horretarako gordetako guneetan bakarrik egon ahal izango dira aparkatuta.

12.4. Los vehículos autorizados solo podrán estacionar en las zonas reservadas para carga y descarga.

12.5. Nolanahi ere, zamalanak egiteko baimena baimendutako ordu eta/edo leku orokorretatik kanpo ere eman ahal izango da, auzokideei eta gainerako bide-erabiltzaileei eragozpenik sortzen ez zaienean.

12.5. No obstante, podrá permitirse la carga y descarga fuera de las horas y/o zonas autorizadas cuando no genere molestias a los vecinos ni a los demás usuarios de la vía.

12.6. Era orokorrean geratzea debekatuta dagoen lekuetan, inoiz ez da zamalanik egin ahal izango.

12.6. La carga y descarga nunca podrá efectuarse en los lugares que con carácter general esté prohibida la parada.

12.7. Karga eta deskargarako lanen ondoriozko salgai, material edo gauzak, ez dira lurrean utziko, baizik eta eraikinetik ibilgailura edota alderantziz zuzenean eramango dira.

12.7. Las mercancías, materiales u objetos procedentes de la carga y descarga, no se dejarán en el suelo, sino que se trasladarán directamente del inmueble al vehículo o viceversa.

12.8. Karga eta deskarga-lanak, zarata kaltegarririk ez ateratzeko, behar diren neurriak hartuta egingo dira.

12.8. Las operaciones de carga y descarga habrán de hacerse con las debidas precauciones para evitar ruidos innecesarios.

12.9. Salgaiak, espaloitik hurbilena dagoen ibilgailuaren aldetik zamatuko dira eta lan hori ahalik eta lasterren egiteko beharrezkoak diren baliabideak erabiliko, beti ere, oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioa ez oztopatzen ahaleginduz.

12.9. Las mercancías se cargarán y descargarán por la parte del vehículo mas próxima a la acera, utilizando los medios necesarios para agilizar la operación y procurando no dificultar la circulación de peatones ni de vehículos.

***13. atala. Gordetako bideak eta erreiak.***

***Artículo 13. Vías y carriles reservados.***

13.1. Udal Agintaritzak, ibilgailu-mota batzuek ibiltzeko errei edo bide batzuek gorde ahal izango ditu.

13.1. Por la Autoridad Municipal se podrá reservar determinados carriles o vías para la circulación de ciertos tipos de vehículos.

13.2. Hartarako gordetako errei edo bideetatik ibiltzea, derrigorrezkoa ere izan daiteke haiek berentzat gordeta dituzten

13.2. La circulación por los carriles y vías reservadas podrá ser obligatoria para los vehículos a los que se destinan.

ibilgailuentzat.

***14. atala. Abiadura.***

14.1. Hirigunean erabil daitekeen abiadurarik handiena, 40 km/h-koa izango da, bestelakorik dioen seinalerik ez bada.

14.2. Oinezkoentzako guneetan, hartarako baimena emanda dagoenean, eta espaloirik gabeko galtzadetan eta oinezkoen joan-etorri handia dagoen beste hainbat lekutan, ibilgailuek, oinezkoak pasatu ahala abiadura laburtu egin beharko dute eta baita geratzera iritsi ere egoerak hala eskatzen duenean. Beti ere, istripurik izan ez dadin hartu beharreko neurri guztiak hartuko dituzte.

14.3. Era berean, oinez doazenei istripuak edo eragozpenak ez sortzeko diren neurriak hartuko dira, batez ere, zoladura gaizki dagoenean edo galtzada estutzen denetan, obretan ari direnean, eguraldi txarra egiten duenean, eta abar.

***Artículo 14. Velocidad.***

14.1. La velocidad máxima en el casco urbano será de 40 Km/h. salvo señalización en otro sentido.

14.2. En las áreas peatonales cuando esté autorizado, así como en las calzadas sin aceras y otros lugares en que haya afluencia de viandantes, los vehículos reducirán la velocidad al paso normal de los peatones, incluso hasta llegar a detenerse y tomarán las precauciones necesarias para evitar accidentes.

14.3. Igualmente se tomarán las precauciones necesarias para evitar accidentes o molestias a los viandantes, en caso de mal estado del pavimento, estrechamiento de la calzada, obras, condiciones meteorológicas adversas, etc.

***15. atala. Zirkulazioa.***

15.1. Ibilgailuek, ez dute zaratarik sortu behar soinuzko seinaleak edo seinale akustikoak behar ez bezala erabilita, bortizki azeleratuta, ihes-tutua aldatuta edo hondatuta eramanda edota antzeko egoerek eraginda.

15.1.1. Automobilek eta ziklomotoreek sor dezaketen gehienezko zarata-neurria, ez du izan behar 82 dB(A) baino handiagoa 08:00etatik 22:00ak bitartean eta ezta 76 dB(A) baino handiagoa ere 22:00etatik 08:00ak bitartean. Ziklomotore eta motozikletek sortutako zarata-neurria neurtzea, azelerazio moduan egingo da, neurgailua, ibilgailutik hurbilen dagoen gainazaletik 7,5 metrora jarrita.

15.2. Bizikleta eta ziklomotoreen gidariek, indarrean diren zirkulazio- eta seinaleztapen-arauak jakin egin behar dituzte eta haiek eta Agintaritza-agenteek emandako argibideak estu-estu bete behar dituzte.

15.3. Irristailu, gurpil-ohol eta umeentzako bizikleta edo trizikloek berentzat gordetako erreietan ibili behar dute eta halakorik ezean, oinezkoen guneetan ibili ahal izango dira, oinezkoen multzoak hartarako aukera ematen

***Artículo 15. Circulación.***

15.1. Los vehículos no podrán producir ruidos ocasionados por el uso indebido de señales acústicas, aceleraciones bruscas, tubos de escape alterados o deteriorados u otras circunstancias análogas.

15.1.1. El nivel máximo sonoro emitido por vehículos automóviles y ciclomotores, no podrá superar los 82 dB (A) de 8 a 22 horas y de 76 dB (A) de 22 a 8 horas. La medición del nivel sonoro emitido por los ciclomotores y motocicletas se realizará en aceleración colocando el aparato de medición a 7,5 metros desde la superficie más próxima al vehículo.

15.2. Los conductores de bicicletas y ciclomotores deberán conocer las normas de circulación y señalización vigentes, ateniéndose estrictamente a ellas y a las indicaciones de los Agentes de la Autoridad.

15.3. Las bicicletas, patines, monopatines y triciclos deberán circular por los carriles reservados al efecto, y en su defecto, podrán hacerlo por las áreas peatonales, siempre y cuando la afluencia de peatones lo permita,

duenean, baina beti ere oinezkoek duten lehentasuna errespetatuz eta haientzat arriskurik sortu gabe, abiadura oinezkoenari egokituta.

15.3.1. Debekatua dago irristailu, gurpil-ohol eta antzekoekin galtzadetan ibiltzea.

15.4. Txirringak galtzadan zehar dabiltzanean, eskuinaldeko ertzetik ibiliko dira.

15.5. Hainbat txirrindulari edo motodun taldean doazenean, ilaran joango dira, elkarren artean beharrezkoa den segurtasun-tartea utzita eta abiadura- edo trebezia-norgehiagokarik egin gabe. Edonola ere, debekatuta dago paraleloan joatea.

15.6. Debekatuta dago txirringan edo ziklomotorean beste lagunik eramatea, azken horrek horretarako baimena duenean salbu.

15.7. Gurpildun aulkietan dabiltzanak, oinezkoentzako espaloietan ibiliko dira beren neurriek oinezkoei eragozpenik sortu gabe ibiltzeko aukera ematen dietenean. Hori ezinezkoa balitz, galtzadatik ibiliko dira, eskuinaldeko ertzetik eta une oro ere bideetako seinaleak errespetatuz.

15.8. 15.1.1 atalean xedatutakoa ez betetzeak, dagokion zigor-espedientearekin batera, ziklomotore edo motozikletaren jabeari egindako errekerimendua ekarriko du berekin, ikusitako akatsa 7 eguneko epean konpon dezan, eta epe hori amaitutakoan, titularrak ibilgailua Udaltzainen bulegoan aurkeztu ahal izango du ihes-tututik ateratzen den zarata-mailak baimendutako maila ez duela gainditzen frogatzeko. Hori frogatzen denean, zigor-espedientea artxibatu egingo da. Aipatutako eskaerari ezetz esateak, edota aipatutako zazpi eguneko epean akats edo huts hori zuzendu gabe ibiltzeak, ibilgailua ibilgetzea ekarriko du.

15.9. Ibilgailua ibilgetutakoan, jabeak, ibilgetze hori sortu duen akatsaren zuzenketa egiteko lekurik izendatzen ez badu, ibilgailu hori udalaren biltegira eramango da.

respetando la prioridad de éstos y sin crear peligrosidad para los mismos, adecuando su velocidad a la normal de un peatón.

15.3.1. Queda prohibido circular por la calzada con patines, monopatines o similares.

15.4. Cuando las bicicletas circulen por la calzada, lo harán tan próximas a la derecha como sea posible.

15.5. Cuando circulen en grupo varios ciclistas o motoristas lo harán en fila, manteniendo entre sí las distancias de seguridad y sin entablar competiciones de velocidad o destreza. En todo caso se prohíbe la circulación en paralelo.

15.6. Queda prohibido el transporte de acompañantes en bicicleta o ciclomotor, salvo que éste último lo tenga autorizado.

15.7. Las sillas de ruedas circularán por las áreas peatonales cuando sus dimensiones permitan hacerlo sin estorbar a los viandantes. Caso contrario lo harán por la calzada, lo mas pegados al borde derecho que sea posible y respetando en todo momento la señalización de las vías.

15.8. La inobservancia a lo dispuesto en el artículo 15.1.1 llevará aparejada además del correspondiente expediente sancionador, un requerimiento al titular del ciclomotor o motocicleta, al objeto de que proceda a subsanar la deficiencia observada en un plazo de 7 días, transcurrido el cual, el titular podrá presentar el vehículo en la Inspección Municipal donde una vez comprobado que el nivel sonoro procedente del tubo de escape no supera el límite permitido será archivado el expediente sancionador. La omisión al requerimiento indicado, así como la circulación sin que se subsane la deficiencia durante los referidos 7 días, dará lugar a la inmovilización del vehículo.

15.9. Si inmovilizado el vehículo, el propietario no designase el lugar de traslado para efectuar la corrección de la anomalía que motivó la paralización, se procederá a la retirada del vehículo al depósito municipal.

***16. atala. Ibiltzeko edo aparkatzeko baimen bereziak.***

Udaleko Agintaritzak, pisu edo neurri batzuetatik gorako ibilgailuak leku eta/edo ordu zehatz batzuetan zirkulatzea edo aparkatzea mugatu ahal izango du, eta horretarako udal baimenik izan ezean, herriko bideetan barrena ez dute zirkulatzerik izango. Baimen hori, bidaia bakar baterako edo denboraldi baterako eman ahal izango da.

***17. atala. Herri-bideetan galarazitako jarduerak.***

17.1. Beste oinezko batzuentzat edo jarduera horiek egiten ari direnentzat arriskua edo eragozpenak sor ditzaketen jolas edo denborapasak, herri-bideetan ez dira egingo.

17.2. Edozein esparru edo zerbitzutara sartzeko sortutako itxarote-ilarak, ordenaz egin beharko dira, banakako ilaran eta eraikinaren fatxaden kontra, galtzadara irten gabe eta etxebizitza eta dendetarako sarbideak libre utziz. Ilara horiek sortzen dituzten jardueren arduradunek, beharrezkoa den ordena-zerbitzua jarri beharko dute, bidea erabili behar duten pertsonei eragozpenik ez jartzeko edota haiekin gorabeherarik ez izateko.

17.3. Debekatua dago salgai arriskutsuak dituzten ibilgailuek herrian barrena zirkulatzea eta horretarako herria inguratzen duten bideak erabili beharko dira.

Salbuespen izaeraz, erabat behar-beharrekoa denetan ibilgailu horiei herri-gunera sartzeko baimena emango zaie, ondoren aipatzen diren arrazoietakoren bat tarteko delako eta, beti ere, ondorio bakar horietarako eginda eta urtarrilaren 31ko 74/92 Errege Dekretuak xedatutako eran eta baldintzen pean eginda:

— Salgaien karga eta deskarga egiteko eta salgaiak banatu edo zabaltzeko.

— Behar bezala justifikatuak eta ezinbestekoak diren arrazoiengatik.

17.4. Debekatuta dago herri-bideetan ibilgailuak garbitzea, hartarako leku zehatzen bat egokituta dagoenean salbu.

***Artículo 16. Permisos especiales para circular o estacionar.***

